



Fantasiako eta Beldurrezko  
Zinemaren Astea  
Semana de Cine  
Fantástico y de Terror  
Horror and Fantasy  
Film Festival

## “FOLKLORE BELDURGARRIA” ZIKLOA ETA PAUL NASCHYRI ETA HR GIGER ETA “ALIEN”-I BURUZKO ERAKUSKETAK AURTENGO BELDURREZKO ASTEAN

Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko 30. Astea urriaren 26tik azaroaren 1era izango da aurten. **Folklore beldurgarria – Folk Horror** zikloa antolatuko da eta, beste jarduera batzuen artean, erakusketa hauek izango dira: batetik, **Paul Naschyri** eskainitakoa, Espainiako zinemaren historiak izan duen pertsona garrantzitsuenetako baten ingurukoa, alegia; eta bestetik, nazioarteko hainbat artistek HR Gigerri eskainitakoa, batez ere, 40 urte bete dituen **Alien** filmerako (1979) sortu zituen diseinuei eskainia.

*zikloa*

### Folklore beldurgarria – Folk Horror

Zinema arloan *folk horror* esamoldeak kultura desberdinetako antzinako folkloreak ondareak filmetan izan duen eragina aditzera ematen digu. Britainia Handian 60-70eko urteetan loratutako korrante horren goraldiaren erakusgarri ditugu, besteak beste, azkeneko urteetan egin diren **Troll Hunter** (2010), **The Witch** (2015), **Border** (2018) edo **Errementari** (2017) pelikulak.

Britainia Handian, kultura zeltarekin eta Erdi Aroarekin lotuta egon arren, leku desberdinetako tradizioetan –kolonareko Amerika, Asia, herrialde eskandinaviarretako mitoak eta abar– oinarritu diren obretan ere aplika daiteke terminoa. Landako ingurunea, paganismoa edo sorginkeria eta okultismoa dira istorio liluragarri horien osagaietako batzuk, gizakiaren beldurrik zaharrenekin konektatzen dutenak.

Atzera begirako ziklo horretan eskainiko diren filmen artean ikono bilakatutako batzuk daude –**I Walked With a Zombie** (1943), **The Wicker Man** (1973), **The Last Wave** (1977)– baita hain ezagunak ez diren beste batzuk ere.

Gainera, Hermenaute argitaletxeak, festibalarekin lankidetzan, *Folk Horror: Lo ancestral en el cine fantástico* izeneko monografia argitaratuko du, **Jesús Palacios** kritikariak koordinatua.

*erakusketa*

### Paul Naschy – Autobiografia bat iruditan

Okendo KE

urriak 26 – abenduak 14

Komisarioa: **Antonio Busquets (Flash-Back Producciones)**

Erakusketa hau, dudarik gabe, Paul Naschyk (Jacinto Molina Álvarez, 1934-2009) bere bizitzan eta lanbidean izan zuen ibilbideari inoiz egin zaion aitortza zabalena eta osatuena da. Bere familiak erakutsitako konfiantzari esker –haren alargun Elvira Primavera eta Sergio eta Bruno semeak– omenduaren artxibo pertsonala lagako da erakusketarako. Hala, aurretik inoiz ikusgai egon ez diren materialak ikusi ahal izango dira, haren *scrapbook* zoragarriak eta idazmahaia, besteak beste.



**Fantasiako eta Beldurrezko  
Zinemaren Astea**  
**Semana de Cine  
Fantástico y de Terror**  
**Horror and Fantasy  
Film Festival**

Paul Naschy Europako fantasiako zinemaren historian izan den irudi garrantzitsuenetako bat da. Erakusketak osorik biltzen du bere karrera joria: bere aurreneko lanak disko-azaletako ilustrazio bikainen sortzaile gisa, poltsikoko nobelen autore gisa izan zuen etapa labur eta bitxia, halterofilian egin zuen karrera arrakastatsua noski, eta bere azkeneko agerraldiak pantaila handian. Jakina, Espainiako zinemari egin zion ekarpen izugarri handia eta ahaztezina izango da erakusketaren muina, bere lan oparoan oinarritua: hogeitau pelikula baino gehiago zuzendu zituen, hainbat eta hainbat gidoi eta ehunetik gora kreditutan ageri da aktore gisa, eta zenbait hamarkadatan, hirurogeiko urteetatik hasita, hezurramitu zituen beldurrezko zinema klasikoko mito gailenak; bera ere generoko mito bilakatzeraino, nazioartean errespetatua eta txalotua.

Erakusketak, gainera, lehen aldiz aurkeztuko ditu artistaren eta berarekin lan egin zuten profesionalen –atrezzo, jantzi, makillaje, efektu berezi eta abarreko sailtakoak– biltegietako eta artxiboetako edukiak. Enpresa eta izen mitikoek –besteak beste, Vázquez Hermanos, Cornejo, Molina FX edo Julián Ruiz, Miguel Sesé, Ángel Luis de Diego eta Fernando Florido makillatzaileak– eta ilustrazioak, istorietak, diseinuak, kartelak eta bozetoak, José Sanchis, Gumersindo Andrés López, Jano, Antonio Gracia José “Pierrot” eta beste hainbat eta hainbat autore ahaztezinek sortuak.

*erakusketa*

## **Creators of Legends – HR Gigerri omenaldia**

Udal Liburutegiko Ekitaldi Aretoa (San Jeronimo)

urriak 26 – azaroak 10

Komisarioak: **Carlos Arenas eta César Oropeza**

HR Giger artista suitzarrak goitik behera aldatu zuen bere diseinuekin zientzia fikzioaren eta beldurrezko zinemaren *looka*, **Alien** (1979) pelikulan izan zuen kolaborazioan. Gainera, Donostiako Kubo-Kutxa aretoa 2009an eskaini zion atzera begirako handi hartan ikusi ahal izan zenez, **Alien** baino askoz ere zabalagoa da bere lana, arlo desberdinak biltzen baititu: pintura, eskultura, marrazkia, eta altzarien eta arkitekturen diseinua. Gigerrek sormenezko unibertso ikusgarri bat garatu zuen, munstro biomekanikoez, jainkosa satanikoez eta paisaia gotikoez jositako imaginario baten bitartez, eta zalantzarik gabe izugarritzko eragina izan dute latitude guztietako artista berrien artean.

**Creators of Legends – HR Gigerri omenaldia** talde-erakusketak hainbat herrialdetako artistak biltzen ditu –Mexiko, Estatu Batuak, Australia, Espainia, Frantzia, Polonia eta Alemania–. Haiek HR Gigerren obran inspiratuta garatzen dituzte beren sorkuntzak pinturaren, eskulturaren, marrazkiaren eta argazkilaritzaren arloetan.

Nazioarteko erakusketa bat da, ibiltaria, eta lehen aldiz bisitatuko du Espainia, Mexikoko, Suitzako eta Alemaniako hainbat hiritan egon ondoren. 2019an, hain zuzen, **Alienen** 40. urteurrena dela eta, instalazio artistiko bat gehitu zaio, **Orioneko Bestiariora** izenekoa; **Alien: Covenant** (2017) filmeko pertsonaia nagusitako bat den David androidearen laborategian dago inspiratua, eta bertan espazio aztoragarri bat birsortuko da, fikzioa, zientzia eta artea elkartuko dituen.